

GIPUZKOAKO UDALERRIETAKO TOKIKO AGENDA 21eko EKINTZA-PLANEN EBALUAZIOA 2016

**TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANAK
EBALUATU ETA PROGRAMATZEKO ZERBITZUA**

EMAITZEN TXOSTENA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obris
Hidrolikoetako Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA



TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA

GIPUZKOAKO UDALERRIETAN TOKIKO AGENDA 21eko EKINTZA- PLANAK EBALUATZEKO ETA PROGRAMATZEKO ZERBITZUA. EMAITZEN TXOSTENA | 2016

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Departamentua

Beatriz Marticorena. Ingurumeneko Zerbitziburua

Iker Zubimendi. Ingurumeneko Goi-mailako Teknikaria

LAGUNTZA TEKNIKOA

Laguntza teknikoaren koordinazioa eta txostena idaztea

Edurne Simón

Leire Garmendia

Planen ebaluaziorako eta programaziorako talde teknikoa

Aitor Gonzalez

Ane Simón

Edurne Simón

Leire Garmendia

Monika Rubio

Rosa Aurkia

Grafikoen iturria: txosten honetan agertzen diren grafiko eta irudi guztiak aholkularitza-taldeak egindakoak dira, 2016ko ebaluazio-zerbitzuan jasotako datuetatik abiatuz.

Beste iturri batzuetatik eratorriak direnean, hala zehazten da.

ELKARREKIN 21



Martina Maiz 3, 3. Bulegoa

20.200 Beasain

laia@laiacoop.net

943 164 172



Astigarragako bidea 2, 2. Solairua, 9. Bulegoa

20180 Oiartzun

info@izadi21.eus

943 492 215

PARTE HARTU DUTEN UDALERRIAK ETA ESKUALDEAK:

Aduna, Alkiza, Arama,
Amezketta, Andoain,
Arrasate, Astigarraga,
Azpeitia, Deba,
Debabarrena (eskualde
mailako ekintza-plana),
Donostia, Hondarribia,
Hernani, Ibarra, Irun,
Itsasondo, Ordizia,
Orendain, Oresa,
Tolosa, Urretxu, Zegama
eta Zumarraga.

AURKIBIDEA

1 TOKIKO AGENDA 21 GIPUZKOAN	5
2 GIPUZKOAKO TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANEN EBALUAZIOA	12
3 EBALUATUTAKO EKINTZA-PLANAK	23
4 AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANEN EZARPENA 2015EAN	26
5 KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO EUSKAL ESTRATEGIARI GIPUZKOAKO EKINTZA-PLANEK 2015EAN EGINDAKO EKARPENA.....	37
6 HERRITARREN PARTAIDETZA AGENDA 21EN	48
7 LABURPENA ETA ONDORIOAK	60

1. TOKIKO AGENDA 21 GIPUZKOAN

1.1. TOKIKO AGENDA 21EKO BEHATOKIAREN ESTRATEGIA

Gipuzkoako Tokiko Agenda 21en Behatokia 2005ean sortu zen (aurrerantzean, TA21en Behatokia), Gipuzkoako iraunkortasunaren eta Tokiko Agenda 21en egoeraren zein joeren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

2016. urtean, TA21en Behatokiak Lurraldeko TA21eko egoeraren diagnostiko bat burutu du eta, horri esker, aldi berean, gogoeta bat egin da Behatokiak iraunkortasunaren eta Gipuzkoako TA21en sustapenean bete behar duen funtzioari buruz. Gogoeta hori abiapuntutzat hartuz, Gipuzkoako TA21eko Behatokiaren helburu estrategikoak zein jarduketa-lerroak berrikusi dira eta, estrategia berri bat definitu da, "Tokiko Agenda 21en 15.urteurrena Gipuzkoan: TA21 berri baten gakoak garapen iraunkorreko gobernantza eredu gisa" dokumentuan jaso dena. Estrategia berri honetan lerro estrategiko hauek definitu dira:

1. TA21en jatorrizko helburuak zaintzea eta metodologia aberastea.
2. Gipuzkoako TA21en karakterizazioa eta diagnostikoa egitea, eta emaitzak argitaratzea.
3. TA21en giza-taldeei laguntzeko baliabideak.
4. TA21a garatzeko eta betetzeko baliabide ekonomikoak.
5. Lan instituzionalaren kultura berritzen laguntzea, iraunkortasunera bideratutako kudeaketa publikoa egiteko.
6. Iraunkortasunerako tokiko ekintzaren eta foru-ekintzaren koherentzia bultzatzea.

1.2. TOKIKOAGENDA 21EN EGOERA GIPUZKOAN (*Tokiko Agenda 21en 15. urteurrena, 2016*)

TA21ek ibilbide luzea egin du Gipuzkoan. Ibilbide horren lehen pausoak duela 15 urte inguru eman ziren, gorkaldi nagusia 2002 eta 2007 urteen artean izanik. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak eskainitako laguntzei eta berezko ekimenari esker, Gipuzkoako ia udalerrri guztiek beren TA21en programa abian jarri zuten (udal horietako gehienek tokiko iraunkortasunerako udaleko ekintza-plana onartu zuten).

Gipuzkoako Lurralde Historikoa osatzen duten 89 udalerriek TA21 programa bat jarri dute abian 2002 eta 2015 bitartean. Horietatik 84 beren Tokiko Iraunkortasunerako Ekintza-plana (TEP) onartzera iritsi dira. TEP bat osatzeko udal-politika ezberdinen aplikazioaz arduratzen diren udal-eragileen partaidetza behar da eta, planaren edukia, herritarrekin adostea da egokiena. Beraz, esan daiteke Gipuzkoako udalerrien % 93ak, hasiera bateko diseinu-prozesu horretan gutxienez, TA21 aktiboa izan zuela.

TA21ak Gipuzkoan eman zituen hasierako urrats horien eta erakunde ezberdinen aldetik jasotako bultzadaren ondoren, udal edo eskualdeko garapen-agentziak bakoitzak TA21en garapen prozesuan izan duen inplikazioa ezberdina izan da. Horrela, euren ekintza-planak




onartu ondoren, zenbait udalek dokumentu estrategiko horien kudeaketa aktiboa gauzatu duten bitartean, beste batzuek ez dute ekintza-plana udalerrri edo eskualdeko garapenerako tresna moduan ezarri.

Lurraldeko udalerrien laurden batek, gutxi gorabehera, TA21en kudeaketa aktiboa eta berriazkoa burutzen du eta, halaber, hasierako ekintza-plana berrikusi du, orokorrean, aurreko belaunaldikoak baino kalitate-eta lanketa-maila handiagoko ekintza-planari bidea emanez. Udalerrri horietan tokiko ekintza-plana berrikusteak TA21ekiko konpromisoa berrestea ekarri du, baita ordura arte prozesuaren parte hartzaile sentitzen ez ziren udal- edo eskualde-erakundeetako eragileen parte-hartzea ere. Oro har, udal-multzo horrek tokiko ekintza-planen ezarpenaren aldizkako jarraipen-lanak egiten ditu (helburu estrategiko nahiz xedeen betetze-maila ezagutzeko planaren ezarpen-maila ebaluatu planaren eta Tokiko Iraunkortasun-adierazleak kalkulatu), ebaluazioaren emaitzak argitaratzen ditu eta TA21en koordinazio tekniko egiteko izendatutako pertsona bat du.

Udalerrien ia heren batek, ordea, ez du, gaur egun, TA21en erabilera aktibo bat egiten, nahiz eta gehienek badituzten udaleko osoko bilkurek onartutako udalerrriko iraunkortasun-planak.

Gainerako udalerrietan TA21 prozesuak erdibideko egoeran aurkitzen dira, TA21en inguruan hainbat jardura burutzen baitituzte, baina beraien ekintza-planek ez dute udal-politiken kudeaketan (politiken diseinuan, ezarpenean eta jarraipenean) funtzio esanguratsurik betetzen. Aipatu, udalerrri gehienetan, TA21en prozesuetako jarraipena eta bizitasuna baldintzatzen dituen alderdietako bat haien tokiko ekintza-planak zaharkituta geratu izana dela. Tokiko ekintza-plana eguneratu gabe izateak iraunkortasunaren helburuak lortzeko haren baliagarritasuna baldintzatzen du, planifikaziorako edo gai publikoen kudeaketarako zein partaidetzarako tresna gisa, erabilgarritasuna galduaz.



Gipuzkoako 89 udalerrietatik 84k eta 2 eskualdek, 2000. urtetik hona, Agenda 21en ekintza-plana onartu dute uneren batetan.


Udalerrien laurden batek TA21en kudeaketa aktiboa eta berariazkoa burutzen du eta bere planifikazioa berrikusi du.

Udalerrien ia heren batek, ordea, ez du, egun, TA21en erabilera aktibo bat egiten.

1.Irudia: Tokiko Agenda 21en bizitasun-maila Gipuzkoan.
Iturria: Gipuzkoako TA21en Behatokia – Gipuzkoako Foru Aldundia.

Bestalde, zuzeneko lotura dago udalean TA21en koordinazio teknikorako pertsona bat izendatua izatearen edo ez, eta prozesuaren bizitasunaren artean. Izan ere, TA21a ezartzeko, haren jarraipena egiteko zein eguneratzeko teknikari arduradunik ez egoteak berekin ekartzen baitu TA21ak udal-jardueretan zentraltasuna eta presentzia galtzea.

TA21 garatzea zein, tresna gisa, haren potentzialtasuna zabaltzea baldintzatu duten eta, batzuetan, eragotzi duten sakoneko faktoreak askotarikoak eta konplexuak dira.



2.Irudia: TA21en ardurako teknikaria duten eta ez duten udalerrien banaketa biztanleen arabera Gipuzkoan.


Iturria: Gipuzkoako TA21en Behatokia - GFA.

1.3. UDALERRIEN GARAPEN-MAILA: 2015EAN ONARTUTAKO EKINTZA-PLANAK

Bere ibilbide luzean geroz eta bereziagoak dauden bi garapen-maila nabarmendu daitezke: batetik, Gipuzkoa mailan, Agenda 21en aldeko apustua egin duten udalerriak aurki ditzakegu, iraunkortasun-prozesuaren heldutasunean aurrerapausoak eman dituztenak. Hauen artean, bigarren fase batera igaro diren udalerriak nabarmentzen dira, lehen ekintza-plana amaitzean, ekintza-plan berri bat definitu eta onartu dutenak, alegia. Ekintza-planen berrikuspenak abiarazteko apustuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak honelako prozesuak sustatzeko diru-laguntzek eta Udalsarea 21 sareak berrikuspenetarako definitutako erreferentziazko gida metodologikoa izateak lagundu dute.



Bestetik, Agenda 21en prozesua abiarazi zuten arren, prozesua udal-kudeaketatik kanpo utziz joan diren udalerriak daude eta, horiek, gaur egun, ez dute Agenda 21en irizpideetan oinarritutako plangintzarik aurrera eramaten.



2015 eta 2016 urteen artean Agenda 21en Ekintza-plan berriak onartu dituzten udalerriak 9 izan dira.

3. Irudia: Udalerrien garapen-maila TA21en ebaluazioan (2016ko abendua)
 Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Beraien Ekintza-planak berrikusiz **2015** urtean Ekintza-plan berriak onartu dituzten udalerrien artean **Alegia, Donostia-San Sebastián, Irun, Olaberria, Segura, Urretxu eta Zegama** ditugu.

Alegiaren kasua apartekoa da, 2015ean TA21en bere lehen ekintza-plana onartu baitzuen, Agenda 21en iraunkortasun prozesuarekin bat eginez. Orendainen kasua ere berezia da, hurrengo puntuan azaltzen den bezala.

2016an zehar **Altzok eta Beasainek** beraien Ekintza-plan berriak berrikusi eta onartu dituzte.

2016an oraindik Ekintza-plan berriak onartzeke eta berrikuspen-prozesuan dituzten udalerriak Altzaga, Errenteria, Legazpi, Leintz-Gatzaga eta Tolosa dira.

2015ean onartu eta ebaluatu diren ekintza-planen berrikuspen prozesuak:

DONOSTIA-SS: 2004-2007 eta 2008-2013 epealdirako Agenda 21en Ekintza-planak izan ditu. 2. Ekintza-planak %73ko ezarpen-maila lortu zuen bere azken urtean, EAEko planetarako espero zen balioaren eta batez bestekoaren ezarpen-mailaren oso gaintik kokatuz. **2014 urtean Agenda 21en III. Ekintza-planaren diseinu-faseari heldu zion Udalak, non 2015-2022 epealdirako ingurumen-arloko ekintzak biltzen diren.** Modu paraleloan, baina TA21a aintzat hartuz, Donostiako Ingurumen-estrategia 2030 (DSS Hiri Berdea 2030) osatu zuen Udalak, 2015ean onartutako III. Ekintza-plana "DSS Hiri Berdea 2030"n jasotzen diren helburuak lortzeko tresna bilakatuz (beste urrats bat emanez, Klima 2050 Estrategiaren osaketa-lanak burutzen ari da Udala). Bere osaketarako 12 bilera tekniko egin ziren ingurumen-esparru ezberdinetako 7 mahai teknikoetan banatuta. Horretaz gain, Donostiako Ingurumeneko Aholku-kontseilura ere bideratu zen planaren osaketa.



IRUN: Tokiko Agenda 21en I. Ekintza-plana 2007-2012 arte egon zen indarrean (azken ebaluazio-urtean planak %53ko ezarpen-maila lortu zuen). Berrikuspen prozesua 2013an abiarazi eta, 2015eko apirilean, **2015-2025 epealdirako II. Ekintza-plana** onartu zuen udalbatzak. Prozesuan **garrantzia handia izan zuten bai udal-bai eskualde-mailako eragile tekniko eta politikoek egindako ekarpenek, nola hiriko elkarten zein eragile sozioekonomikoen proposamenek.** Izan ere, udaleko eta eskualdeko enpresa publikoetako ordezkariak partaidetza aktiboa izan zuten diagnosiaren idazketa zein planaren diseinu fasean (barne-mailako bileretan parte hartzeaz gain, herritarren partaidetza prozesuetako lan-saioetara bertaratu ziren). Era berean, 2014ko urritik 2015eko martxora bitartean Udalak herritarrei zuzenduta antolatutako partaidetza-prozesuan hiriko errealitatearekin zerikusia duten askotariko elkarteak egon ziren ordezkaturak. 2015-2025 epealdirako Ekintza-planaren **diseinu-fasean garrantzia berezia eman zitzaion, halaber, izaera estrategikoa eta zeharkakoa duten bestelako udal-planei** (2020 urterako Irungo Plan Estrategikoa, Mugikortasun

Iraunkorrerako Plana, Energiaren Iraunkortasunerako Ekintza-plana, Euskara Biziberritzeko Plana, Berdintasunerako III. Udal-plana, ...).



ORENDAIN: Orendaingo Udalaren kasua berezia da. **Azken urteetan bezala, 2015ean Agenda 21eko Ekintza-planaren eraberritze- edo eguneraketa-prozesu bat eraman du aurrera.** Eguneraketa-prozesu hauetan herritarren parte-hartze zabala izan da. Honela, ekintza-planari ekarpen berriak egin zaizkio urtero, baina jaso diren ekintza berri hauek MUGI 21 aplikazioan barneratzean erabili den irizpidea ez da egokia izan. Ondorioz, Ekintza-planaren egitura eta ezaugarritze desegoki bat eman da, ebaluazio zailduz eta lortutako emaitzetatik irakurketa egokia egitea eragotziz.

URRETXU: Udalbatzak 2010ean onartu zuen 2009-2011 Jasangarritasunerako II. Tokiko Ekintza-planak 2013 urtera arte iraun zuen. Urte berean abiarazi zuen Udalak aipatu planaren berrikuspen prozesua. **Diagnostikoa egiteko 3 foro antolatu ziren eta, bertan, Urretxuren ezaugarriak, ahuleziak eta indarguneak aztertu ziren.** 2014 eta 2015 urteen artean ekintza-plan berria landu zuen Udalak, udaletxeko teknikari eta politikarien bitartez, batzorde informatzaile guztietan. Ondoren, Udalak herritarren foro bat antolatu zuen aurretik landutako dokumentua berresteko eta ekarpenak jaso asmoz. Azkenik, ekintzak ezaugarritu ziren udal-teknikari zein agintarien bidez eta, **2015eko apirilaren 30eko udalbatzan, 8 urtetarako Urretxuko Tokiko Agenda 21en III. Ekintza-plana onartu zuen.**

ZEGAMA: 2005en onarturiko lehen Ekintza-plana momentuko egoerari egokitzen ez zitzaiola ikusita, Udalak 2014an Ekintza-plan berria definitzeko eta adosteko pausuak eman zituen. Informazio iturri ezberdinetara joaz osatutako sintesi-diagnosiarekin abiarazi zen berrikuspen prozesua. **Prozesuan eragile ezberdinen eta herritarren ekarpenak jasotzeko hainbat parte-hartze prozesu gauzatu ziren,** hala nola; udal teknikari eta politikoeekin eginiko bilerak, herritarren parte-hartze saioak eta telefono bidezko inkestak. Sintesi diagnostikoan oinarrituz,

Zegamako Tokiko Agenda 21en Ekintza-plana definitu zuen Udalak, **8 urtetako iraunaldiarekin** (2015-2023).



2. GIPIZKOAKO TOKIKO AGENDA21EKO EKINTZA-PLANEN EBALUAZIOA

2.1. EBALUAZIOAREN HELBURUAK

Gipuzkoako udalerrienak

Ekintza-planaren gauzatzearen ebaluazio-prozesuaren helburu nagusia egin diren jarduerak xehetasunez ezagutzea eta plana onartua izan denetik bere urteko ezarpen-maila kuantifikatzea da.

Tokian tokiko Ekintza-planen ebaluazioaren berriazko helburuak eta onurak honakoak dira:

- ✓ Udalerrri bateko ekintza-planaren ezarpen-maila periodikotasun batekin ebaluatzea eta urte-artereko emaitzak alderatzea (hau da, urte batetik bestera gertatutako garapen-mailaren eboluzioa ezagutzea), nola udalen emaitzak beren artean erkatzea ere.
- ✓ Ebaluazioan oinarrituz ekintza-planaren ahultasun- eta indar-gune nagusiak antzematea, beti ere, ekintzen tipologiaren, gaien, ekintzen arduradunen eta beste aldagai batzuen arabera, horrekin guztiarekin, planaren gauzatzea optimizatzeko.

- ✓ Urtero, edo maiztasun zabalagoaz, ekintza-planaren edukiak eguneratzea edo moldatzea, egindako ebaluaziotik abiatuz eta irizpide teknikoetan oinarrituz.
- ✓ Planari eman zaion xehetasun-mailari dagokionez, plana bera gertuagotik aztertu eta garaiz zein zuzentasunez ezartzea oztopa dezaketen zehaztasun-gabeziak zuzendu ahal izatea.
- ✓ Planaren esparruan gaurdaino burutu diren jardueren bilduma lortzea era argi eta objektiboan, hala egin ezean, jarduera horiek guztiak bere osotasunean ezagutzeko segurtasunik ez bailitzateke egongo.
- ✓ Udal-eragileek planaren ezarpenean izan duten inplikazio-maila ezagutzea.
- ✓ Planaren gauzatzeko-mailari buruzko informazioa eskuratzea, herritarrei, eragile sozial zein ekonomikoei eta, bereziki, bere diseinuan eta/edo jarraipenean parte hartu duten guztiei komunikatzeko.
- ✓ Barruko hausnarketa prozesua sustatzea, Tokiko Agenda 21en koordinatzaileaz gain, ekintza-planeko ekintza zehatzen ardura duten eragile ezberdinak planaren urteko kudeaketan inplikatzea, beraiek parte diren tokiko iraunkortasun prozesura gehiago hurbiltzarren.
- ✓ Gauzatzeko-mailan aurrerapenik ez duten ekintzak identifikatzea, egoera horren arrazoiak baloratuz eta etorkizunean gauzatu ahal izateko konponbideak proposatuz.
- ✓ Hurrengo urterako ekintza-plana programatzea, planean zeresana duten eragileek hurrengo urterako jada aurreikusita dituzten jarduerekin bat etorritik.


Foru Aldundiarenak

Foru Aldundiaren esparruari dagokionez, Zerbitzuak bi alderditatik eragin nahi du: batetik, Aldundia udalerrien euskarri den erakunde gisa hartuta; eta, bestetik, lurralde-politiketan eskumenak dituen erakunde moduan. Zentzu horretan, berariazko helburuak honakoak dira:

- ✓ Gipuzkoako udalerrien ekintza-planen ezarpena zertan den eta plan horiek osorik garatzeko dauden zailtasunak ezagutzea, ahalik eta modurik objektiboenean eta sistematikoenean, iraunkortasunaren arloko politika publikoak ezartzerakoan Foru Aldundiaren laguntza-politikak bideratzeko eta egokitzeko.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) udalentsako dauzkan diru-laguntzen eraginkortasuna eta diru-laguntza horiek udal-mailako iraunkortasuna hobetzeko bidean izan duten eragina ebaluatzea
- ✓ Tokiko Agenda 21 prozesuak ikusarazten eta kudeaketa integrala burutzen laguntzea.
- ✓ Agenda 21en aldeko apustua egiten duten udalerrientzat lan-esparru komun bat erraztea, zeinek zerbitzua eskaintzeaz gain, udalerrien arteko topaketak egitea ere ahalbidetzen duen.

2.2. TOKIKO AGENDA 21 PROZESUAK

Tokiko Agenda 21 prozesuak ondorengo irudian agertzen diren faseei jarraituz garatu ohi dira: martxan jartzea, diseinua, ezarpena, jarraipena eta berrikuspena.



4.Irudia: Tokiko Agenda 21 prozesuaren eskema.


Iturria: Euskadiko udalerrietan Tokiko Agenda 21en Ekintza-planen urteko Ebaluazioa eta Programazioa egiteko gida metodologikoa (Ihobe, 2006)

Ezarpenera faseak, aldi berean, bi baliabide osagarri gehitzen ditu jarraipena egiteko:

- ✓ Ekintza-planaren gauzatze-mailaren urteko ebaluazioa: ekintzen nahiz helburu estrategikoen betetze-maila ebaluatzeko.
- ✓ Tokiko Iraunkortasun-adierazleen kalkulua: iraunkortasunaren aldeko helburu estrategiko eta xedeen nahiz Aalborg-eko Konpromisoen lorpen-maila ebaluatzeko.

Tokiko Agenda 21ak eraginkortasunez ezartzeko, beharrezkoa da plana (urte anitzetarako planifikatua) programazioaren ohiko praktikarekin eta udal-kudeaketaren garapenarekin (eskuarki, urteko epeetan edo aldi txikiagoetan planifikatua) lotzea. Horrela, bada, jardueren mugarriak hurbilagoak eta mugatuak izan behar dira, Plana modu zehatzagoan eta ikusgarriagoan aplikatu ahal izateko.

Testuinguru horretan, Ekintza-planaren urteko kudeaketak, hurrengo irudian agertzen denak, iraunkortasunari dagozkion helburuen (Iraunkortasun-adierazleak) eta burututako jardueren (Planaren gauzatze-ebaluazioa) lorpen-mailaren bilakaera baloratzea zein komunikatzea eta, hurrengo urtean zehar gauzatu beharreko jarduerak (Planaren urteko programazioa) ezartzea ahalbidetzen du, nagusiki, udal-aurrekontuei lotuz.




5. Irudia: Tokiko Agenda 21en Ekintza-planaren urteko kudeaketaren zikloa.
 Iturria: Gipuzkoako Tokiko Agenda 21eko ekintza-planaren ebaluazioari buruzko txostena (TA21en Behatokia, 2015)

2.3. TOKIKO AGENDA 21EN EBALUAZIORAKO eta PROGRAMAZIORAKO METODOLOGIA

Azken 10 urtetan, TA21en ekintza-planaren ebaluaziorako eta programaziorako laguntza-zerbitzua, Gipuzkoako Foru Aldundiak TA21en kudeaketa zein aplikaziorako udalei emandako sostengu-programa garrantzitsuenetako bat izan da.

2005ean abian jarritako zerbitzu horren bidez, kanpo-laguntza teknikoa eman zaie udalei eta eskualde mailako entitateei, bai TA21a garatzeko, bai beren ekintza-planaren aplikazio-mailaren ebaluazioa egiteko ere. Lan hori burutzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak metodologia estandarizatu eta erakargarria aplikatzea sustatu du. Programa horretan parte hartzea boluntarioa da eta, tokiko entitateei, tokiko iraunkortasun-planaren kudeaketa eta aplikazioa hobetzeko tresna bat eskaintzea du xede.





6. Irudia: Tokiko Agenda 21eko ebaluazio -eta programazio- metodologia.
Iturria: Gipuzkoako TA21en Behatokia (2016)

Ebaluazioa

Ebaluazio-metodologia honetan datza: udal bakoitzak bere TA21a garatzeko abian jarritako jardura zein proiektuak biltzea eta Tokiko Ekintza-planean zehaztutako ekintzei zein neurritan erantzuten dioten aztertzea. Beraz, horretarako, TA21en jardueren garapenean ardura duten udal-esparru edo sail guztiek parte hartu behar dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratatutako kanpo-laguntzaileak, prozesu osoan zehar, TA21en udal-koordinatzaileari aholkularitza ematen dio eta, aldi berean, ekintza-planaren ebaluazioa erreferentziako metodologiaren arabera egiten dela bermatzen du. Era berean, Udalaren Ekintza-plana osatzen duten ekintza bakoitzaren egoera egiaztatzen du, emaitzen

objektibotasuna bermatzeko. MUGI21 aplikazio informatikoaren laguntzaz eramaten da aurrera ebaluazioa.

Aplikazio hori Udalsarea 21 sarearen (Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea) kide diren udalek zein eskualde mailako entitate publikoek (garapen agentziek edo mankomunitateek) erabil dezakete, eta IHOBE sozietate publikoak, Udalsarea 21en idazkaritza tekniko gisa, koordinatzen du.

Ebaluazio horren bidez lortutako datuak aztertuz, urtez urte, planaren aplikazioaren bilakaera behatu daiteke, bai oro har, bai esparru, departamentu edo gaikako atal bakoitzeko. Horri esker, informazio ugari eskuratzen da. Informazio horrek planaren kudeaketa zein ezarpena hobetzen laguntzeaz gain, komunikazio-baliabideak sortzen ere laguntzen du, herritarrei udal-jardueraren berri emateko eta, era horretan, gardentasunean aurrerapausoak emateko.



Gehienetan, ebaluazioa egiteko bi laguntza mota eskaini dira: **Laguntza Integratua**, lehen aldiz parte hartzen duten udalerriei zuzendua; eta **Laguntza Sinplifikatua**, aldezturik beren planaren ebaluazioa egin duten udalerrientzat. Lehenengoz ebaluatzen duten udalen zenbatekoak behera egin duenez, laguntza integratua egokitu egin da bigarren plana abian duten udalerriei zuzentzeko. Eredu horrekin, prozesua finkatzeko hasierako euskarri sendoa eman nahi da eta, aldi berean, etorkizunera begira, udalen lidergo, ahalegin eta inplikazio handiagoa sustatzeko balio du. Horrela, Zerbitzuarekin bat egiteko interesa duten udalerriguztiengana heltzea lortu nahi da, teknikoki zein ekonomikoki, ebaluazio-prozesua bideragarria izan dadin.

Urteko ebaluazio-programa amaitzen denean, emaitzen txosten orokorra argitaratzen da. Bertan, zerbitzuan parte hartu duten udalerri guztiak aztertzen dira eta, horri esker, Gipuzkoako Lurralde Historikoan tokiko iraunkortasunerako planen ezarpen-mailari buruzko ikuspegi globala lortzen da.

Beraz, udalei emandako zerbitzu honen bidez bildutako informazioari esker, Gipuzkoako Foru Aldundiak TA21en kudeaketa aktiboa gauzatzen duten lurraldeko udalerrietako ekintza-planen dinamikotasunari buruzko datuak eskuratzen ditu urtero.

Hala ere, kontuan hartu behar da ebaluazioak tokiko iraunkortasunaren kudeaketa sistemaren alderdi oso zehatzak aztertzen dituela eta, bere horretan, ezin dela TA21en kalitate globalaren diagnosa egiteko erabili. Alegia, programaren bidez TA21en bidez egindako plangintzaren betetze-maila ebaluatzen da eta baita plana ebaluatzen den urtean TA21i lotutako parte-hartze mekanismoen bizitasuna ere, baina ez prozesuaren kalitatea, bere osotasunean. Bestalde, kontuan hartu behar da ebaluazioa egiten duten udalerrietan bakarrik oinarritutako diagnosiak ez duela Gipuzkoa osoko egoera zehatz islatzen (hasiera batean, ebaluazio-programan parte hartzen duten udalak eta eskualde-mailako planak dituzten garapen-agentziak TA21en kudeaketa aktiboena egiten dutenak izan arren, gerta daiteke, zenbait urtetan ebaluazioa gauzatu ez duten udalerriak beraien ekintza-planen berrikuspen-fasean murgilduta egotea).

Programazioa

Jardueren programazioan laguntza ematea da Zerbitzuaren bigarren funtzio esanguratsua. Udalek edo eskualde-mailako ekintza-planak dituzten garapen-agentziek, Tokiko Ekintza-planean zehaztutako ekintzak gauzatzeko, hurrengo urteari begira aurrera eramateko jardueren hautaketan datza programazioa.

Programazio eraginkor bat egiteko, TA21en plangintzan zehaztutakoa hartu behar da oinarritzat (epea eta ekintzen lehentasuna) eta, era berea, kontuan izan behar dira ebaluazioaren ondorioz lortutako emaitzak eta udalerraren edo eskualdearen unean uneko egoera (aurrekontu nahikoa izatea, finantzaketa-aukerak, lehentasunezko udal-politikoak, herritarren eskaerak, Planeko helburuen betetze-maila, eta abar).


Egikaritze-mailaren ebaluazioak herritarrei emaitzak jakinarazten lagun dezakeen moduan, programazioa funtsezko elementua da udalaren plangintza estrategikoan zehaztutako helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko. Horrez gainera, udal-kudeaketan herritarren iritzia txertatzen laguntzeko ere balio du programazioak.

Planak ebaluatzeko udalei emandako urteroko laguntzaren baitan kokatuta egon da, hasieratik gainera, aurreikusitako jarduera guztiak biltzeko eta horiek MUGI 21en programazioaren modulura atxikitzeko aukera. Era horretan, modulu hori egoki erabiliz, hurrengo aurrekontu ekitaldirako jardueren programazioa egiteko aukera legoke eta, horrek, TA21en ekintza-planaren kudeaketa eraginkorrean lagunduko luke. Hala ere, orain arte, udal gehienek ez dute programazio-moduluaren erabilera egokirik egin edo ez dute erabili.

2.4. EBALUAZIO- ETA PROGRAMAZIO-ZERBITZUAREN BILAKAERA

Ebaluazio-zerbitzuaren bilakaera

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintako TA21en Ekintza-planen Ebaluaziorako Zerbitzuak hamaika urte ditu eta, berau udalerrri partaideen beharretara egokituko dela ziurtatzen duen esperientzia zein beharrezko baliabide nahikoa ditu dagoeneko.



7. Irudia: Ebaluazio programan parte hartu duten udalerrien kopuruaren bilakaera.

Iturria: Gipuzkoako TA21eko Behatokia -GFA.

Urtez urteko ebaluazioen bilakaera:

2005: Gipuzkoako Foru Aldundiak herri-politikak modu koordinatuan eta irizpide berdinekin ebaluatzen zuten udalerriei (laguntza integrala) eta 2005 urtean dagoeneko ebaluazioa egin zutenei erantzuteko (laguntza sinplifikatua). Laguntza-zerbitzuaren 2. edizioan, orotara, 12 udalerririk parte hartu zuten.

2006: lehen aldiz, 2 ebaluazio mota hartu ziren kontuan, beren ekintza-plana lehen aldiz ebaluatzen zuten udalerriei (laguntza integrala) eta 2005 urtean dagoeneko ebaluazioa egin zutenei erantzuteko (laguntza sinplifikatua). Laguntza-zerbitzuaren 2. edizioan, orotara, 12 udalerririk parte hartu zuten.


2010: urte honetara arte, zerbitzua finkatzearen eta partaide gehiagori zabaltzearen aldeko apustua egin zen. Hori horrela, 2010eko ebaluazio- eta programazio-zerbitzuan 38 udalerririk parte hartu zuten. Aldi berean, Zerbitzuak 2009 eta 2010 urteen artean onartu ziren bigarren belaunaldiko plan berrietara egokitu zuten ebaluazioa.

2012: Partaide kopurua 43 udalerrikoa izatera iritsi zen (lurraldeko biztanleriaren % 80tik gora hartuz) eta ekintza-planik zaharrenak berrikusteko beharra orokortu egin zen. Horrela, udalerriek beraien ahaleginak ekintza-plan berria berrikustera eta idaztera bideratzen zituzten bitartean, Zerbitzuak parte-hartze partzialerako aukera eskaini zuen (honekin bat egiten zuten udalek ez zuten ekintza-plana ebaluatzen, baina TA21en bizitasunari buruzko datu interesgarriak errazten zituzten), bai Gipuzkoako TA21aren Behatokia elikatzen duen tokiko informazioa eskuratzea bai TA21aren alde apustu egiten duten udalerrien eta GFAREN arteko komunikazioa bermatuz.


2013: urte hartan 35 udalerrik parte hartu zuten. Udalerririk horietatik 6k bigarren belaunaldiko plan berriak ebaluatu zituzten, 1ek lehen aldiz parte hartu zuen laguntza-programan, 22 udalerrik beraien lehen Ekintza-plana ebaluatu zuten eta 6k partzialki parte hartu zuten. Gainera, TA21en kudeaketa sendoa duten zazpi udalerrik 2015. urterako helburuetan oinarritutako programazioaren prozesuan parte hartu zuten.

2014: 30 izan ziren udalerririk parte-hartzaileak. 26k beren ekintza-plana ebaluatu zuten eta, horietatik 5ek, 2014an onartutako ekintza-plan berriak ebaluatu zituzten. Horrez gain, 4 udalerrik prozesuan partzialki parte hartu zuten. 10 udalerrik beren ekintza-planen urteko programazioa indartzeko lan egin zuten, 2014ko ebaluazio-emaitzak oinarritzat hartuz 2016 urterako programazioaren lanketa abiarazi baitzuten.

2015 urtea: 23 udalerririk izan dira Gipuzkoako TA21en Ekintza-planak Ebaluatzeko eta Programatzeko XI. Laguntza-zerbitzuan parte hartu dutenak. Horiek guztiek ekintza-plana ebaluatu dute eta horietatik 7k ekintza-plan berriak lehen aldiz ebaluatu dituzte. 11 udalerririk beren ekintza-planen urteko programazioa indartzeko lanean dabiltza.



Hala ere, 2011n inflexio bat eman zen udal-eragile parte-hartzaileen areagotze progresiboan eta, hortik aurrera, egindako ebaluazio kopuruak behera egin du. Horren arrazoietakoa bat onartutako plan askoren indarraldia amaitu izana da. Izan ere, planen berrikuspen-prozesuek 1-2 urte irauten ohi dute eta, epe horretan zehar, egoera horretan zeuden udalerririk gehienek ebaluazio-programan parte ez hartzea erabaki zuten. Beraz, berrikuspen-fasean zeuden udalerririk gehienek, berrikuspena amaitu eta plan berria onartu ondoren, berriro ere ebaluazioa egiten hasi ziren. Hala ere, aipagarria da etengabeko horiek ez direla beti arrazoi berarengatik eman: udal asko, garai batean beren TA21en kudeaketan modu aktiboan jardun arren, berau alde batera uzten joan baitira.



2016ra arte, guztira 57 udalerrik, gutxienez, behin ebaluatu dute beren TA21en ekintza-plana

306 ebaluazio egiteko laguntza gauzatu da Zerbitzuaren hasieratik hona

7 udalerrik eta eskualde batek 9 edo 10 urtez beraien planak ebaluatu dituzte

8. Irudia: Gipuzkoako TA21en Behatokiko zerbitzuaren bitartez udalerrri eta eskualdeek burututako ebaluazio-kopurua

Iturria: Gipuzkoako TA21eko Behatokia (GFA)

Programazio-zerbitzuaren bilakaera

Ebaluazioan ez bezala, programazioaren egikaritzea ez da erabat finkatu eta, beraz, gutxitan lortu da modu eraginkorrean garatzea. **Gipuzkoako udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza-planen kudeaketari lotutako erronkari erantzunez eta ebaluazioaren emaitzetatik abiatuz, ezarpen-maila baxua lortu duten ekintzen programazioaren lanketa egitea eta berau udal-aurrekontuen osaketarekin uztartzea lortu nahi da.**

Horregatik, ebaluazioan laguntzeko 2014ko ebaluazio-zerbitzuaren berrikuntza gisa, TA21en kudeaketa-maila aurreratua zuten 7 erakundez osatutako taldea sortu zen, udal eta garapen-agentziek 2015eko programazioa burutzeko. Hala eta guztiz ere, 7 horietatik bakan batzuek soilik amaitu zuten zeregin hori.


Esperientzia pilotu hori oinarritzat hartuz, 2015ekoko zerbitzuan ere 7 udalerrik burutu zuten beren planen programazioa 2016 urterako: Aduna, Arrasate, Astigarraga, Deba, Hernani, Legazpi eta Tolosa.

2016eko laguntza-zerbitzuan 11 udalerrik bultzatu dute beren planen programazioa 2017 urterako: Aduna, Arama, Astigarraga, Deba, Donostia/San Sebastián, Ibarra, Irun, Itsasondo, Urretxu eta Zegama. Zenbait udalerritan programazioaren lanketarako urratsak ematen hasi baziren ere, barne-koordinazio arazoengatik, azkenean ez dute 2017rako zehaztapenik egin.

2017rako programazioaren lanketarako laguntza-zerbitzuak, 2015eko ebaluazio-emaitzak aztertu eta programaziorako irizpideak eman dizkie udalei. Alde batetik, dagoeneko martxan dauden ekintzei erantzuten dieten jarduerak programatzeko laguntza-zerbitzua eskaini du eta bestetik, honako baldintzak betetzen zituzten ekintzen zerrenda bidali die, udalek horien inguruko hausnarketa egin eta programaziora bideratzeko:

- 2015ean oraindik *Hasteko* dauden ekintzak (zenbait kasuan, *Hasitakoak* ere aukeratu dira)
- Lehentasun altua edo ertaina izatea
- Epe motz eta ertainekoak

Behin programazioan kontuan hartzeko ekintza posibleen zerrenda bidalita, aurrera egin duten udalek (11 udal) ez dute modu berean jardun. Horrela, zenbait kasutan, TA21en arloko arduradunak 2015ean garatu gabe zeuden ekintzen zerrenda aztertu eta gaikako teknikariei bidali diete, horietako bakoitzak 2017 urterako balizko jardueren programazioa lantzeko. Beste kasu batzuetan, aldiz, ebaluazio-emaitzak aurkeztu ondoren, aurkezpen-saioan parte hartu duten teknikariei euren arloko ekintzen zerrenda banatu zaie, 2017rako jardueren hausnarketa egin dezaten. Lanketa hori egin ostean, zenbait udalek programatutako jarduera horiek 2017ko udal-aurrekontuetan aintzat hartu dituzte edo horietan txertatzeko lanean ari dira.



3. EBALUATUTAKO EKINTZA-PLANAK


3.1. EBALUATUTAKO EKINTZA-PLANEN EZAUGARRIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiaren **Ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzuak** 2016an **23 plan** ebaluatzeko laguntza eman du.

Agenda 21 hobeto ezagutzen eta emaitzak interpretatzen laguntzen duten elementuetako bat mota honetako planen **ezaugarrien analisia** da.

Ekintzak dira **ebaluazio-foku** nagusia, urte bakoitzean ekintzei lotuta burutu diren jarduera zehatzak biltzen baitira.


Ebaluatu diren Ekintza-planen hedadura honako hau da:



9. Irudia: Ekintza- eta inplikaturako eragile-kopuruaren batez bestekoa, udalerriaren biztanleen arabera (2015)

2016an ebaluatu diren 23 planen artean oso udalerrri txikiak, 114 biztanle dituztenak (Orexa), eta 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrriak daude (Irun, Donostia). Planen hedaduraren eta udalerrietako biztanle kopuruaren artean zuzeneko erlazioa nabaria da: normalean, geroz eta biztanle gehiago izan, orduan eta ekintza gehiago ditu planak.


2016ko ebaluazioan inplikaturako eragileei dagokionez ere erlazio hori zuzena da: udalerrri txikien Agenda 21eko planetan eskualde-mailako erakunde zein eragileen parte-hartzea baxua izan da eta ekintza-planaren exekuzioan ardura hartzeko baliabideak, urriak.



10. Irudia: Ekintza-planetako ekintza-kopuruaren eta inplikaturako eragile-kopuruaren eboluzioa (2010-2015)
Iturria: Gipuzkoako TA21en Behatokia (GFA)


Azken urte honetan ekintza-planen hedadura aurreko urteetako mailara itzuli dela esan daiteke. Ekintza-plan berriak tamainaz doitu badira ere, tamaina handiko udalerrietako ekintza-planen ebaluazioak batez besteko hedaduran eragin duela nabari behar da. Planetan inplikaturako eragileen batez besteko kopurua mantendu egin da azken urteetan.

Jarraian 2016. urtean zehar aztertu den plan bakoitzeko ekintza-kopurua eta inplikaturako eragile-kopurua adierazten da:



11. Irudia: Ekintza-planetako ekintza-kopuruaren eta inplikaturako eragile-kopurua udalerrika eta batez bestekoa (2015)

Planifikatutako ekintzei erreparatzen badiegu, esparru anitzekoak direla ikus daiteke. Halere, gai nagusiak Mugikortasuna eta garraioa, Garapen ekonomikoa, Ongizatea eta gizartean sartzea, Biodibertsitatea eta ingurune naturala, Lurraldea eta antolamendua eta Energia direla ikus daiteke.



Mugikortasuna eta garraioa	10,31%	Hondakinak	5,40%	Osasuna	3,05%	Zarata	1,56%
Garapen ekonomikoa	8,32%	Udal administrazioen ingurumen kudeaketa	4,94%	Euskara	2,69%	Atmosfera	1,33%
Ongizatea eta gizartean sartzea	8,09%	Ura	4,61%	Bizikidetza	2,45%	Ingurumen arriskua	1,23%
Biodibertsitatea eta ingurune naturala	7,46%	Kultura	3,91%	Ekonomia jardueren ingurumen kudeaketa	2,35%	Aldaketa klimatikoa eta inpaktu globala	1,09%
Lurraldea eta antolamendua	7,26%	Sentsibilizazioa eta kontsumo jasangarria	3,42%	Berdintasuna	1,89%	Lurzoruak	1,06%
Energia	7,03%	Lan merkatua	3,22%	Etxebizitza	1,86%	Demografia	0,03%
Komunikazioa eta herritarren parte hartzea	5,44%						


12. Irudia: TA21ean planifikatutako ekintzen gaiak.
Iturria: Gipuzkoako TA21en Behatokia (GFA)

4. AGENDA 21EN EKINTZA-PLANEN EZARPENA 2015 URTEAN

4.1. EKINTZA-PLANEN BATEZ BESTEKO EZARPENA


2015 urteko ezarpen-maila ebaluatu duten udalerrien artean, batzuk plan berria lehen urtez ebaluatu dute eta, beste batzuek, berriz, lehen planaren indarraldiko 8. eta 9. urtea ebaluatu dute jada.

Nabarmentzekoa da ebaluatutako ekintza-planen herenak soilik gaintitzen duela 3 urtetako indarraldia. Honek, planen ezarpen-mailaren batz bestekoa helburu den ezarpen-mailarekiko aldentzea areagotzen du.



13. Irudia: Planaren ezarpen-maila urteka, udalerriz udalerrri eta guztizkoa, ezarritako helburuarekiko.

2015eko egoera ezagutzeko ebaluatu diren 23 ekintza-planetako azterketetan oinarrituz, batez besteko ezarpen-epea 3,5 urtetan kokatzen dela, eta epe honetan, batez besteko ezarpen-maila %36koa dela ikus daiteke. Balio hau 8 puntutan urruntzen da epe horretarako ezarritako helburuko baliotik.



4.2. EKINTZA-PLANEN EZARPEN-MAILA


Ondorengo irudian, 2016an ebaluatutako 23 udalerriek 2015 urtean lortutako ezarpen-maila azaltzen da. Kontutan hartu behar da, plan batzuk bere 9. ezarpen urtea dutela dagoeneko eta, beste batzuk, aldiz, 1. urteko ezarpenean daudela.

BATEZ BESTEKO EZARPEN-MAILAREN GAINETIK dauden udalerriak (udalerrien %39): Andoain, Amezketa, Arrasate, Azpeitia, Deba, Hondarribia, Ordizia, Orendain eta Tolosa.

BATEZ BESTEKO EZARPEN-MAILAREN AZPITIK dauden udalerriak (udalerrien %61): Aduna, Alkiza, Arama, Astigarraga, Debarrena, Donostia, Hernani, Ibarra, Irun, Itsasondo, Orexa, Urretxu, Zegama eta Zumarraga.



EZARPEN-MAILA



14. Irudia: 2015 urtean planek lortutako ezarpen-maila

4.3. EKINTZA-PLANEN EZARPEN-ERRITMOA


Jarraian Ekintza-planen ezarpen-erritmoa aztertzen da, lehenengo eta bigarren belaunaldiko ekintza-planak diren kontuan hartuz:

Lehen belaunaldiko planak

2015eko egoera ebaluatu duten planen artean, **soilik 3 dira lehen belaunaldiko planak**, Amezketta, Hondarribia eta Orendain. Hauek, ebaluatutako planen %13 suposatzen dute eta 7 - 9 urte arteko ezarpen-epea dute jada.

Orendain da 9. urtea ebaluatu duen bakarra, baina 9. urteko ebaluzioan ezartze-maila negatiboa eman du, ekintza-planaren ezaugarritze desegokiarengatik eta azken urtean

barneraturiko ekintza-kopuru altuagatik. Arrazoi horregatik, 9. Urtea ez da ondorengo irudian islatu.



15. Irudia: Lehen belaunaldiko Planen ezarpen-maila urteka eta udalerriz udalerriz, ezarritako helburuarekiko eta beraien batez bestekoarekiko, 2015ra arte.


Orokorrean, 1. belaunaldiko planen indarraldia agortzeaz dela nabaria da eta, honek, azken urteetan ezarpen-erritmoa nabarmenki jaistea eragin du. Kasu guztietan, azken urteko ezarpen-erritmoak ez du %4a gainditzen.

Talde honetako udalerrien artean Amezketaren egoera nabarmentzekoa da, %75eko ezarpen-maila izanik ere, ebaluatutako azken urtean ezarpen-erritmoak apur bat gorantz egin baitu. Hondarribiak, aldiz, asko jaitsi du ezarpen-erritmoa azken urtean.

Bigarren belaunaldiko planak

2015eko egoera ebaluatu duten planen artean **20 dira bigarren belaunaldiko planak** (ebaluatutako planen %87).

Kasu honetan, gainera, azpimarratzeko da, plan batzuk 8-10 urtetarako diseinatu direla (18) eta, beste batzuk, aldiz, epe laburrerako, 3-5 urte bitarteko indarraldia dute ezarria (2 ekintza-plan).



16.Irudia: Bigarren belaunaldiko eta 8-10 urterako diseinatu diren Planen ezarpen-maila urteka eta udalerriz udalerriz, ezarritako helburuarekiko eta beraien batez bestekoarekiko, 2015ra arte.

Talde honetan %16ak soilik gaintzen du 3 urtetako indarraldia. Honela, batez besteko balioa hutsekoa da 4. urtetik aurrera.


8-10 urtetara diseinatutako planak izanik, bere iraunaldi-eparearen erdia gaintu dute honakoek: Andoain, Arrasate eta Ordizia.

Talde honetan aipatzekoak dira bere lehen ezarpen-urtean bultzada handia jasan duten udalerriz batzuk, adibidez, Irun eta Urretxu. Lehen urtean %29ko eta %24ko ezarpen-maila lortu dute, hurrenez-hurren.

Udalerriz asko dira ezarpen-erritmo nabarmena dutenak. Azpimarratzekoa da Aduna, Andoain, Arrasate eta Azpeitiaren kasua. Nahiz eta ez diren helburuko baliora iristen, batez bestekoa gaintu egiten dute eta, batez ere, azken urtetan ezarpen-erritmoari eutsi diote.

Bigarren belaunaldiko udalerrri batzuk bere planen diseinuan epe laburragorako planifikazio bat egitea hautatu zuten, 3 eta 5 urte artekoa. Deba da horietako bat, zeinak plana 2013-2016 eperako definitu zuen. Horregatik, beste planekin alderatuz %23ko ezarpen-maila bere lehen urterako altua dela iruditu arren, ez da hainbestekoa, kontuan hartzen bada 4 urterako definitu zela.

Tolosaren kasuan, dagoeneko aurreikusitako iraunaldia agortu arren, azken urteetan ezarpen-erritmo egonkor bat mantendu du.



17.Irudia: Bigarren belaunaldiko eta 3-5 urterako diseinatu diren Planen ezarpen-maila urteka eta udalerriz udalerrri, ezarritako helburuarekiko eta beraien batez bestekoarekiko, 2015ra arte.

Ezarpen-mailari dagokionez, arlo ezberdinetako ekintzen ezarpena nahikoa homogeneoa bada ere, %30-40 inguruan gehienak, Demografia (%75) eta Hondakinetan (%51) eman da ezarpena-mailarik handiena.

Gaiaren araberako ezarpen-maila


GAIA	EZARPEN MAILA 2015
Lurraldea eta antolamendua	% 33
Bioaniztasuna eta ingurumen naturala	% 33
Mugikortasuna eta garraioa	% 39
Ura	% 38
Hondakinak	% 51
Energia	% 33
Atmosfera	% 18
Klima aldaketa eta inpaktu orokorra	% 21
Akustika	% 29
Lurzoruak	% 25

Ingurumen arriskua	% 39
Ekonomia-jardueren ingurumen kudeaketa	% 34
Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa	% 32
Sentsibilizazioa eta kontsuko iraunkorra	% 32
Komunikazioa eta herritarren parte-hartzea	% 42
Garapen ekonomikoa	% 42
Lan merkatua	% 40
Ongizatea eta gizarteratzea	% 40
Kultura	% 42
Osasuna	% 37
Euskara	% 37
Berdintasuna	% 37
Demografia	% 75
Etxebizitza	% 37
Bizikidetza	% 42



4.4. EKINTZA-PLANEN EZARPEN-MAILAREN HAZKUNTZA 2014-2015


Soilik 2015ko ezarpen-mailaren hazkuntza kontutan hartuz, orokorrean, erlazio bat ikus daiteke lortutako ezarpen-maila eta planaren ezarpen-urtearen artean:



18. Irudia: Ekintza-planen ezarpen-mailaren hazkuntza (2015)

4.5. EKINTZA-PLANEN EZARPEN-MAILAREN EGOERA OROKORRA 2015EAN

Ebaluatutako 23 planen **2.983 ekintzei** egindako ebaluazioak, ekintza bakoitzerako bere ezarpen-egoera ezartzea ahalbidetzen du: *hasteko, hasita, aurreratuta, amaitzen eta amaituta* egoeren artean bereiz daiteke, aurreikusita zegoena eta benetan egin dena kontutan hartuz.



19. Irudia: Ekintzen ezarpen-mailaren egoera orokorra (2015)

2015ean 23 planetako **716 ekintza** oraindik **Hasteko** zeuden. Hala ere, kasu askotan ekintza horietako batzuk hasita ez egotea logikoa da, batzuetan epe ertain edo luzera garatzeko ekintzak baitira.

Ebaluatutako ekintzen erdia baino gehiago (%57), hau da, **1.700 ekintza**, 2015ean, behintzat, **Hasita** edo **Aurreratuta** zeuden, planak bizirik dirautela adieraziz.


Ebaluatutako ekintzen %19, hau da, **566 ekintza**, **Amaitzen** edo **Amaituta** zeuden 2015ean.

4.6. EKINTZA-PLANEN EZARPEN-MAILAREN EGOERA 2015EAN

Lehenengo belaunaldiko planen ezarpen-egoera

Lehenengo belaunaldiko plan gehienak 7. eta 9. urte arteko ezarpen urtean daudela kontutan hartuz, planen ekintzen gehiengoak **Amaitzen** eta **Amaituta** dago. Orendain eta Amezketan bezalako udalerrietan **Amaituta** edo **Amaitzen** dauden ekintzak dira nagusi, orotara %50a baino gehiago izatera iritsiz.

Hondarribiaren kasuan adierazgarria da **Hasi gabe** egoeran dagoen ekintza-kopurua eta, ziurrenik, egoera horretan jarraituko dutenak. Egoera hau, normalean, planen diseinua egin zenean beste testuinguru bat zegoelako gertatzen da eta, beraz, gaur egun, ekintza horiek ez dute lehentasunik.




20. Irudia: Ebaluatutako udalerrietako ekintzen ezarpen-egoera. Lehenengo belaunaldiko planak (2015)

Bigarren belaunaldiko planen ezarpen-egoera

Andoain eta Arrasate dira bigarren belaunaldiko planetan ibilbide luzeena duten udalerriak. Andoaingo kasuan, gutxienez *Aurreratuta* dauden ekintzak %50etik gora dira eta *Hasi gabeko* ekintzarik ez dute. Arrasateren kasuan *Amitzen* edo *Amituta* dauden ekintzak %50etik gora dira eta *Hasi gabeko* ekintzen ehunekoia, aldiz, baxua da.

Kontrako egoera islatzen dute, espero bezala, 8 urtetarako aurreikusitako plan berriek. Izan ere, hauen ezarpenerako lehen urtea izanik, batzuek oraindik ez dute *Amitzen* edo *Amituta* egoeran aurkitzen den ekintzarik. Baina aipatzekoa da, lehen urtea izaki, ekintza-plan berriei eman zaien bultzada. Urretxuren kasuan, esate baterako, udalak ekintzen %16a soilik du *Hasteko*.






21. Irudia: Ebaluatutako udalerrietako ekintzen ezarpen-egoera. Bigarren belaunaldiko planak eta 8-10 urtetarako diseinatuak (2015)

Deba 3-5 urte-arteko iraunaldia duen planaren bigarren ezarpen-urtean aurkitzen zen 2015ean, egoera horretako udalerririk bakarra izanik. *Hasita* edo *Aurreratuta* dituen ekintzak %71 dira eta honek ekintza-plana bizirik dagoela adierazten du.

Tolosan, *Amaitzen* edo *Amaituta* dauden ekintzak %67 dira, beraz, ezarpen-egoera altua dela esan daiteke.



22. Irudia: Ebaluatutako udalerrietako ekintzen ezarpen-egoera. Bigarren belaunaldiko planak eta 3-5 urtetarako diseinatuak (2015)

5. KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO 2050ERA KO EUSKAL ESTRATEGIARI GIPIZKOAKO EKINTZA-PLANEK 2015EAN EGINDAKO EKARPENAK

5.1. MUNDU-MAILAKO TESTUINGURUA

Klima-aldaketari buruzko Gobernu-arteko Adituen Taldea (aurrerantzean, IPCC) klima-aldaketari buruzko ezagutza zientifikoak ebaluatzeaz arduratzen den nazioarteko erakundea da. Klima-aldaketaren fenomenoak gertatzen ari dela egiaztatzeko bildu diren frogak zehatzak ikusita, IPCCk honela definitu zuen klima-aldaketa: “giza-jardueraren eraginez kliman, zuzenean edo zeharka, ematen den aldaketa, munduko atmosferaren osaketa aldatzen duena eta, garai ezberdinetan, kliman berez jazo eta antzematen den aldaketari gehitzen zaiona”.

IPCC sortu zenez geroztik, aurkeztu izan dituen ebaluazio-txostenek berretsi egin dute giza-jarduerak klima-aldaketan eragin dutela.

IPCCk bildutako frogak aurrean, 1992 urtean Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa adostu zen munduko hainbat gobernuen lidergoari esker. Dokumentu hori indarrean jarri ostean Klima-aldaketari buruzko 1. Goi-bilera (nazioarte mailako goi-bilera hauek COP izenez ezagutzen dira, bere ingelesezko siglengatik: *Conference of the Parties*) antolatu zen 1995 urtean, Berlinen. Ondoren, mundu mailako agintarien arteko eztabaida-fase berri bati ekin zitzaion, 1997an onartutako Kiotoko Protokoloarekin amaitu zena. Kiotoko protokoloak isurien arloan derrigorrez bete beharreko helburuak ezarri zituen herrialde industrializatuentzat eta 2004ko azaroaren 18an sartu zen indarrean, Konbentzioan izandako 55 herrialdek edo alderdik berretsi ondoren.

Berlinen antolatutako Klimaren I. Goi-bileratik hona 22 izan dira ospatu diren klima-aldaketari buruzko mundu mailako konferentziak (azkena, COP22 Marrakech 2016). 2015 urtean Parisen antolatutako COP21ean estatuek adostutako Pariseko Akordioa historikotzat jo dute hainbat eragilek. Pariseko Akordioa alderdi anitzeko akordio bat da, juridikoki loteslea eta 195 herrialdek onartua. Herrialde horietako gobernuak epe luzerako helburu nagusia adostu zuten bertan: industria-aurreko egoerarekiko munduko batez besteko tenperaturaren igoera 2°C-tik behera mantentzea eta, era berean, igoera hori 1,5°C-ra mugatzen saiatzea. Izan ere, mugatze horrek nabarmen murriztuko bailituzke klima-aldaketaren arriskuak eta inpaktuak. Horrez gain, honako alderdiak ere adostu zituzten:

- Konpromisoa: 5 urtetik behin elkartzea anbizio handiagoko helburuak ezartzeko (helburu horiek ezagutza zientifikoaren eguneraketaren arabera finkatuko lirateke). Gobernuak onartu zuten, halaber, beren helburuak lortzeko ematen ziren aurrerapenak elkarren artean eta herritarrekin partekatu behar zirela. Gardentasuna eta ikuskerak bermatzeko, inbentario bateratua burutuko da 5 urtetik behin eta egindako isurketak neurtzeko mundu-mailako sistema gardena eta eraginkorra sortuko da.

- **Elkartasuna:** Europar Batasunak eta beste herrialde garatu batzuek klima-aldaketaren aurkako ekintzei sostengua ematen jarraitzea handitzeko garapen bidean dauden herrialdeetan, isurketa atmosferikoak murrizteko eta klima-aldaketaren inpaktuen aurrean erresilientzia. Horrekin batera, nazioarteko sostengua emango zaie garapen bidean dauden herrialdeei, klima-aldaketara egokitzen laguntzeko. Herrialde garatuak beren helburu kolektiboari eusteko, 2025 urtera arte urtean 100 mila milioi dolar jartzea adostu zuten. Horren ostean, helburu berri bat ezarriko da.
- **Galerak eta kalteak:** Pariseko Akordioak artikulua independente bat du, klima-aldaketaren inpaktuei lotutako galera eta kalteen inguruan. Herrialdeek aitortzen dute beharrezkoa dela elkarlanean aritzea eta elkar-ulertzea, ekintza eta sostengua zenbait alorretan hobetzea, hala nola; alerta goiztiarreko sistemetan, larrialdietarako prestakuntzan eta klima-arriskuen aseguruetan.



5.2. EAEko KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO EKIMENAK

2050erako Klima-aldaketaren Euskadiko Estrategia

Azken hamarkadan, klima-aldaketa ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloko erronka handia bilakatu da. Berotegi Efektuko Gasen emisioak murriztea eta horien inpaktuetara egokitzea ahalbidetuko duten estrategiak ezartzeak utzi egin diote mehatxu gisa ikusteari soilik, eta ekonomia lehiakorragoa lortzeko aukera gisa ere jotzen dira orain.

Plangintza zabalak eta malguak eskatzen dituen hainbat aldagai agertzen ditu klima-aldaketak, hala nola: inpaktuen eta jardueren zeharkakotasuna bera, gizarteko hainbat eragilek parte


hartzeko premia, politika publikoak diseinatzeko ezartzen diren epemugak zabaltzea eta klima-aldaketarekin harremana duten inpaktuen ziurgabetasuna.

2050erako Klima-aldaketaren Euskadiko Estrategia bat dator Europar Batasunaren ahaleginekin eta epemugekin arlo honetan, baina gure gizartearen errealtatea hartzen du kontuan. Eusko Jaurlaritzaren tresna gisa ere sortu da, zeharkakoa eta sail guztien koordinazioa nahiz elkarlana beharko duena. Era berean, hiru lurralde historikoetan eta udalerrietan bultzatzen ari diren politikekin lotuta dago. Herri-administrazio osoaren ereduak indar bultzatzailea izan behar du klima-aldaketari aurre egiteko euskal gizartearen erantzunkidetasun orokor bat bultzatzeko eta sustatzeko.



Ekonomia jasangarriarekin eta lehiakorrarekin herritarrek duten konpromisoa sendotzea ahalbidetuko duen tresna da Estrategia.

Klima-aldaketaren aurkako ekintzak bere eraginak arintzearen eta bere ondorioetara egokitzearen ikuspuntuetatik lantzen direnez, Estrategiak ezartzen dituen helburuak bi isurialdetan jartzen dute arreta eta, zeharkakoak direnez, 2050erako helmuga sektorialetan zatitzen dira. Helmuga horietan aurrera egiteko, Estrategiak hurrengo hamarkadetan garatu beharreko ekintzak bideratzen dituzten jarduera-lerroak zehazten ditu.



23. irudia: 2050erako Klima-aldaketaren Euskadiko Estrategiaren egitura.
Iturria: 2050erako Klima-aldaketaren Euskadiko Estrategia.

2050erako Ikuspegia: Euskadik karbono gutxiko eta klima-eraginetara egokitutako ekonomia lehiakorra dauka, ezagutzen oinarritutako klima-aldaketaren arloko politika bat finkatzetik eratorria; horrek ahalbidetu du berrikuntzak eta garapen teknologikoak eskaintzen dituzten aukerak baliatzea.

Hori gauzatu egin ahal izan da euskal gizartearen eragile guztien erantzukidetasunagatik, Herri-administrazioaren ekintza eredugarriak bultzatuta.

Arintzeari, egokitzeari eta energia berriztagarriari dagokionez, aurreko atalean zehaztutako helburuak lortze aldera, 9 Helmuga eta 24 Jarduera-lerro zehaztu dira orotara.

1. H. KARBONO GUTXIKO ENERGIA-EREDU BATEN ALDE EGITEA

1. Eraginkortasun energetikoa hobetzea eta energia-eskaera kudeatzea.
2. Energia berriztagarriak bultzatzea.
3. Eraginkortasun energetikoaren eta energia berriztagarrien arloko irizpideak sustatzea hiri-ingurunean, «zero emisiodun eraikuntzak» lortzearren

2. H. EMISIORIK GABEKO GARRAIO BATERANTZ AURRERA EGITEA

4. Intermodalitatea eta BEG emisio txikiagoak dituzten garraiobideak bultzatzea.
5. Petrolioaren eratorrien kontsumoa ordezte.
6. Garraio-azpiegiturretan zaurgarritasun- eta egokitze-irizpideak txertatzea.

3. H. LURRALDEAREN ERAGINKORTASUNA ETA ERRESILIENTZIA AREAGOTZEA

7. Klima-aldaketarekiko erresilientea, konpaktua eta erabileran mistoa den hiri egitura bultzatzea.
8. Lurralde-estrategian zaurgarritasunaren analisisa eta klima-aldaketarako egokitzapena txertatzea.

4. H. NATURA INGURUNEAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA

9. Ekosistema naturalen multifuntzionaltasuna sustatzea prozesu biologikoen eta geologikoen erregulatzailer gisa, espezie eta habitat zaurgarriak lehengoratzuz.
10. Klima-aldaketaren aldagaia txertatzea kostaldeko eremuen kudeaketan.

5. H. LEHEN SEKTOREAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA ETA HAREN EMISIOAK MURRIZTEA

11. Nekazaritza-ekoizpen integratua, ekologikoa, tokikoa eta BEG emisio gutxiagokoa sustatzea.
12. Euskadik karbono-hustuleku gisa duen indarra areagotzea.
13. Lehen sektoreko (nekazaritza eta arrantza) praktikak eta kudeaketa klima-baldintza berrietara egokitzea.

6. H. HIRI-HONDAKINEN SORRERA MURRIZTEA ETA ZERO ISURPEN LORTZEA TRATAERARIK GABE

14. Hiri-hondakinen sorrera murriztea.
15. Bilketaren eta gaikako bereizketaren ratioak areagotzea eta ondoren berrerabiltzea, birziklatzea eta balorizatzea.

7. H. ARRISKUEI AURRE HARTZEA

16. Epe luzera begira ur-hornidura hainbat erabileratarako bermatzea.

17. Eraikitako ingurunearen eta azpiegitura kritikoen (energia, ura, elikadura, osasuna eta ICTak) erresilientzia bermatzea muturreko gertaeren aurrean.

8. H. BERRIKUNTZA, HOBEKUNTZA ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA BULTZATZEA

18. Berrikuntza sustatzea eta ezagutza zientifikoa hobetzea eta transferitzea.

19. Klima-aldaketaren efektuen monitorizazio- eta jarraipen-sistema bat ezartzea.

9. H. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ARDURATSU, EREDU ETA ERREFERENTE IZATEA KLIMA-ALDAKETAREN ARLOAN

20. Klima-aldaketaren arloan trebetasunak eta gaitasunak eskuratzeko prestakuntza-jarduerak garatzea.

21. Klima-aldaketaren arloan biztanleak sentsibilizatzea, prestatzea eta informatzea.

22. Zero emisio maila duen administrazio publikoa.

23. Klimaren arloko ekintzarako erakundeen arteko koordinazio mekanismoak finkatzea.

24. Euskadi nazioarteko mailan kokatzea klima-aldaketaren arloan.

Gipuzkoako Estrategia

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, Eusko Jaurlaritzaren Klima 2050 Estrategiarekin bat eginez, 2017. urtean programa berri bat jarriko du abian, Klima-aldaketaren aurkako Borrokari dagokionez Departamentuak dituen lerro estrategikoen barruan.

“Gipuzkoak klima-aldaketaren aurkako erronkari modu estrategikoan eta orokorrean heldu behar dio, Europako helburuekin eta euskal estrategiarekin bat etorrita”

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua Klima-aldaketaren aurkako Gipuzkoako Estrategia prestatzen hasiko da, toki-administrazio politika sektorialetan eta maila guztietan eragingo duena. Ingurumen Departamentuak hainbat eskumen dituen -energia, Tokiko Agenda 21, hondakinak, ingurumen inpaktua, hondartzak, uraren hornidura- berari dagokio Klima-aldaketaren aurkako Gipuzkoako Estrategia sustatzea, bultzatzea, koordinatzea eta gainerako foru departamentuetan, beste erakunde batzuetan eta beste eragile batzuetan eragitea, eta haiekin lankidetzan aritzea.

Gipuzkoako udalek klima-aldaketaren aurkako borrokari egiten dioten ekarpena

Klima-aldaketaren eraginei aurre egiteko zeharkako eran jokatu beharra dago, herri-administrazioaren maila guztiak aintzat hartuz. Udalak funtsezkoak dira eginkizun horretan, jarduera arlo batzuetan daukaten erantzukizunarengatik eta herritarrengandik hurbilen dagoen administrazio-maila direlako.

Bigarren belaunaldiko Tokiko Agenda 21en ekintza-planek klima-aldaketaren eta mundu-mailako eraginetan esku hartzeko helburu zehatzak barneratzen dituzte

mugikortasunaren, energiaren zein hondakinen arloetarako eta, baita, planeamenduaren, biodibertsitatearen zein ingurune naturalaren arloetarako ere. Udal hauetako askok Berotegi Efektuko Gasen (BEG) isurpenak kalkulatu eta horien bilakaera aztertzeke ohitura dute, klima-aldaketari lotutako neurriak hartzeke.

Era berean, **Gipuzkoako zenbait udalek klima-aldaketaren aurrean maila ezberdinetako estrategia edo programa zehatzak** definitu dituzte:

DONOSTIA: 2008 urtean Donostiako Udalak *Covenant of Mayors for Climate and Energy* Europako ekimenarekin bat egin zuen eta 2014 urtean, berriz, *Mayors Adapt* sinatu. Horrela, Europa mailako beste 584 herrialdetako udalek egin bezala, 2030 urterako CO₂ isurpenak murrizteke eta klima-aldaketa arindu zein bere eraginetarako egokitzeko ikuspegi integral bat ezartzeko konpromisoa hartu zuen Udalak. Klima-aldaketaren eraginei egokitzeko erronkarekin zerikusia duten departamentuen arteko batzordea ere osatu zuen, Donostia klima-aldaketara egokitzeko plan zehatz bat landu asmoz. Planak klima-aldaketatik eratorritako arriskuen zein ahultasunen analisia jaso eta egokitzeko estrategia bat barneratuko du; **Egokitze-plana**, hain zuzen ere.

Bestetik, Udala **Klima 2050 Estrategia** lantzen ari da ere eta, bertan, herritarrek esku hartzeke aukera izango dute.

Era berean, Donostiako Udalak 2015 urtean *Compact of Mayors* nazioarteko konpromisoa bere gain hartu zuen, EAEko beste 9 udalerrirekin batera (Gipuzkoako udalei dagokionez, Donostiaz gain, Errenterriak, Legazpi eta Tolosak ere sinatu zuten akordioa). Nazio Batuen Elkartearen eta tokiko sare batzuen sostengua (tartean ICLEI) duen akordio hori sinatzen dutenek ondorengo konpromisoak hartzen dituzte: bakoitzak bere buruari BEG isurpenak murrizteke helburuak ezartzea eta argitaratzea; beren isuri eta murrizketak modu estandarizatuan jakinaraztea; klima-aldaketari buruzko urrakortasun-azterketak egitea; klima-aldaketa moteltzeke eta hari egokitzeko ekintza-planak ezartzea.

Klima-aldaketarekin zerikusia duten gaikako arloei dagokionez, Udalak, esaterako, badu energia-eraginkortasunaren zein eraikinen ingurumen-kalitatearen udal-ordenantza bat eta, baita, Energia Iraunkortasunerako Ekintza-plana ere.

ERRENTERIA: Errenteriako Udalak ere *Compact of Mayors* nazioarteko ekimenarekin bat egin zuen 2015ean. Ildo honetan, batetik, 2014 urte amaieran onartutako Energia Iraunkortasunerako Ekintza-plana ezartzeko lanean dihardu eta Udalak bultzatutako Ingurumen Aholku-kontseiluko Energia-mahaiko kideei (elkarte, arloko profesional eta banakako herritarrez osatutako parte-hartze organoa) hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzko informazioa errazten die.

Aipatutakoaz gain, Udalak berezko planak ditu, mugikortasun iraunkorraren, hondakinen prebentzioaren eta baita energia-eraginkortasun zein -aurrezpenaren arloan ere. Aipatu behar da Udalak aurki onartutako duela **klima-aldaketarekin zerikusia duten arlokako plan**

ezberdinak integratuko dituen Erreterriako Iraunkortasunerako II. Ekintza-plana (2017-2025).

TOLOSA: Klima-aldaketaren aurkako borrokan Udalak energia-eraginkortasuna eta energiaren aurrezpena lehenesten ditu sektore guztietan, baita mugikortasuna irizpide jasangarrien arabera antolatzea, hondakinak eraginkorki kudeatzea edota tokiko biodibertsitatea hobetzea ere.


Ildo honetan, azpimarratzekoak dira Udalak 2009 urtean martxan jarritako Klima-aldaketaren aurkako ordenantza, **2012-2020 epealdirako Klima-aldaketaren Aurkako Programa** eta 2013an onartutako Energia Iraunkortasunerako Ekintza-plana ere. Azken honi dagokionez, Tolosak 2020 urterako 3 konpromiso hartu ditu: energiaren kontsumoa %20an murriztea, energia berriztagarrien erabilera %20an handitzea eta CO₂ isurpenak %20an gutxitzea.

LEGAZPI: *Compact of Mayors* nazioarteko ekimenarekin bat egin duten EAEko udalen artean aurkitzen da. Horrekin batera, **Legazpi Klima 2030** izeneko estrategia onartzeko bidean da Udala. Estrategiak klima-aldaketaren aurkako plana eta TA21en Ekintza-plan berria integratuko ditu eta aurretik indarrean egon zen klima-aldaketaren aurkako planarekin alderatuz, Legazpi Klima 2030 estrategiak egokitzapen-neurriak ere barneratzen ditu.

Klima-aldaketaren aurka aritzeko beste plan edo programa zehatzei dagokionez, Mugikortasun Iraunkorrerako Plana eta Energia Iraunkortasunerako Ekintza-plana ere baditu Udalak.



Horiez gain, Klima-aldaketaren aurkako planak ez dituzten baina arazoari aurre egiteko gaikako planak onartuak eta martxan dituzten udalak ere badaude (hala nola; Energia Iraunkortasunerako Ekintza-planak -EIEP-, Mugikortasun Iraunkorrerako Planak, Hondakinen kudeaketa-planak). **2016ko ebaluazio-zerbitzuan parte hartu duten Gipuzkoako udalerriei erreparatuz gero, klima-aldaketarekin lotura zuzena duen energiaren arloan ari diren udalak eta garapen-agentziak** hauek lirateke:



Covenant of Mayors edo Alkateen Ituna izeneko Europa mailako ekimenarekin bat egitea izan da energia iraunkortasunaren arloan udalek edo garapen-agentziek hartu ahal izan duten erabakietako bat. 2008an, Europako Batzordeak Alkateen Ituna sortzearekin, udalak inplikarazi nahi izan ziren Europako energia-politikaren helburuak lortzeko. Helburu zehatza hauxe da: **2020 urterako CO₂ isurketak %20 baino gehiago gutxitzea udal-eremu guztietan.** Horretarako, energia-kontsumoa %20 gutxitu behar dute eta energia-eskariaren %20 gutxienez energia berriztagarrien bitartez ase edo bete beharko lukete. Itunak dakartzan betebeharren artean, berau sinatzen den egunetik urtebeteko epean EIEPa (Energia iraunkorrerako Ekintza-plana) udal eremu guztirako definitzea dago, industria-esparruan izan ezik.


Bestetik, *Alkateen Ituneratz zuzenduz* konpromisoa EEEK (Energiaren Euskal Erakundeak) diseinatutako ekimen bat da eta bere helburua 2020. urteari begira udalerrietan energiaren kontsumoari lotutako alor bakoitzerako plangintza energetiko zehatza egitea da. Itun honekin bat egiten duten udalek beren energia-plangintza definitzen dute kontsumo-alorraren arabera. Hortaz, ez da udal-plangintza orokor bat. Epe ertaineko plangintza horretan, ekintza zehatzak antzeman eta progresiboki gauzatzen dira energia kontsumitzen duten arlo guztietan, industrian izan ezik.

2008tik aurrera Alkateen Itunera edo Alkateen Ituneratz Zuzenduz konpromisora atxiki diren Gipuzkoako udalerriak hauek dira:

- ALKATEAREN ITUNAREKIN (*Compact of Mayors*) bat egin dutenak: Donostia, Errenteria, Hondarribia, Irun, Oñati, Tolosa eta Usurbil.
- ALKATEAREN ITUNERATZ ZUZENDUZekin bat egin dutenak: Amezketak, Astigarraga, Azpeitia, Beasain, Eibar, Elgoibar, Legazpi, Ordizia eta Villabona.

5.3. GIPUZKOAKO AGENDA 21EN EKINTZA-PLANEN KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO EKARPENA 2015EAN


Klima-aldaketaren Aurkako 2050 Estrategiak zehaztu dituen 9 helmugak eta hauetatik eratorritako 24 jarduera-lerroak zeintzuk diren aintzat hartuz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Agenda 21en Tokiko Ekintza-planak ebaluatzeko Laguntza-zerbitzuko XI. edizioan parte hartu duten udalerrietan 2015 urtean zehar gauzatu ziren jardueren analisisia egin da. Analisi horren bidez klima-aldaketarekin zerikusia duten arintze- nahiz egokitze-jarduerak antzeman dira, azpi-arloka banatuz.



24. Irudia: Ebaluatutako Ekintza-planetan gauzaturako jardueren ekarpenak Euskadiko Klima 2050 Estrategiak ezarritako 9 helburuei (2015)

Irudian ikusten denez, Kontsumoa eta Hondakinak (%23) eta Energia (%19,1) arloetan kokatzen dira Klima-aldaketaren inguruan Udalek burutu dituzten jarduera gehienak. Berrikuntza eta Ezagutza (%1,4) zein Lurralde-antolamendua eta Hirigintza (%2,7) arloko jarduerak berriz, orotara gutxien garatu diren esparruak dira.





25. Irudia: Ebaluatutako Ekintza-planetan gauzatutako jardueren ekarpenak Euskadiko Klima 2050 Estrategiak ezarritako 9 helmugei (2015)

Herrietako zehaztasunera jaitsez, ikus daiteke Arama, Itsasondo eta Orea planetan Klima-aldaketari lotutako jardueren artean energia esparrukoak izan direla gehiengoak. Tolosa, Urretxu eta Zegamak, berriz, mugikortasunaren gaia garatu dute batik bat. Bestalde, Kontsumoa eta Hondakinen esparruan kokatzen dira Hondarribia, Arrasate eta Amezketak 2015ean burututako jardura gehienak. Lehen sektorea eta karbono hustubideen inguruko jardueren gauzatzeari heldu diote, berriz, Alkiza, Deba eta Zegaman.

6. HERRITARREN PARTAIDETZA AGENDA 21EN

6.1. EGINDAKO AZTERKETA ETA KONTSULTATUTAKO UDALERRIEN LAGINA

Ondoren aurkezten den azterketa, ebaluazio-zerbitzuan parte hartu duten 23 udalerriek osatutako galdetegi batean oinarritzen da. Aztertutako 23 udalerrien artean Orexa bezalako udalerrri txikiak daude, 114 biztanlekoak, edo Donostia bezalakoak, lurraldeko hiriburua, 190.000 biztanle inguru dituen.

Tamainaren arabera baino, Udalaren izaera eta bestelako faktoreek eragiten dute partaidetzaren garapenean zein arrakastan. Foru-zerbitzuaren XI. edizioan, galdetegian aztertu diren partaidetza-prozesuak edo mekanismoak Tokiko Agenda 21en baitan aurrera eramaten direnak izan dira, udalerrietako beste partaidetza-prozesuekin dagoen koordinazioa ere neurtuz.




Udal- eta eskualde-mailako TA21en ardura duten eragileek osatu dituzten galdetegiei esker, besteak beste, honako arloei buruzko informazioa jaso eta aztertu da:

1. TA21en partaidetzaren eta udalerriko beste partaidetza-mekanismoen arteko koordinazioa
2. TA21en herritarren partaidetzaren planifikazioa eta udal-baliabideak
3. TA21en barruan herritarren partaidetza-mekanismo aktiboen existentzia
4. TA21aren barruan herritarren partaidetzaren dinamismoa eta hedadura
5. TA21aren barruan herritarren partaidetzaren ordezkartza-maila
6. Ekintza-planaren jarraipenean eta diseinuan herritarren partaidetzak duen protagonismoa
7. Udalerrian TA21ak bultzatutako kultura parte-hartzailearen ezaugarriak

8. Azpimarratzekoak diren parte-hartze arloko udal edo eskualde mailako ekimenak antzematea


a) Udalerrian, 2015. urtean, zein partaidetza-prozesu eraman dira aurrera?



26. Irudia

2015.urtean aurrera eraman diren partaidetza-prozesu nagusiak sektore eta gai zehatz bati lotuak izan dira edo, baita, udal-aurrekontuen definizio eta kontraste-fasearekin harremana dutenak ere.


b) Zein mailatako koordinazioa dago partaidetza-prozesu desberdinen eta Tokiko Agenda 21en artean?



27. irudia

Udalerrri gehienek (%47,6) partaidetza prozesu berriak Tokiko Agenda 21etikiko independententeki koordinatzen dituzte. Gainontzeko udalerrietan, maila bateko edo besteko koordinazioa dago partaidetza-prozesu ezberdinen eta TA 21en artean.

c) Partaidetza-prozesuak eta TA21a independenteak diren kasuetan iraukertasun irizpiderik txertatu al da prozesuan?




28. irudia

Partaidetza-prozesuak eta TA21a independenteak diren kasuen %33,3ak ez du inolako iraukertasun irizpiderik txertatu prozesuan.

TA21en partaidetza-mekanismoak eta udalerriko gainerako partaidetza-prozesuak independententeak izan arren, udalen %56,7ak iraukertasun irizpideak txertatu ohi ditu aipatu prozesuetan.

d) Ondorengo zeregin hauetatik zeintzuk eramaten dira aurrera TA21en partaidetzaren KUDEAKETAN?



29. irudia


TA21en partaidetzaren kudeaketan aurrera eramán diren zeregin ohikoenak deialdi, akta, eta abarren kudeatzea, partaidetzarekin lortu nahi diren helburuak finkatzea eta herritarren partaidetzarako urteko plangintza egitea izan dira.

Donostia izan da, 2015 urtean, TA21en partaidetzaren kudeaketan zeregin gehienak aurrera eramán dituen. Aduna, Arama, Itsasondo eta Tolosako udalerrien kasuan ere, zeregin desberdinak eramán dira aurrera.

29. irudian ikusten den bezala, udalerrri gehienek kasuan, ez da TA21en partaidetzaren planifikazioan zeharkako gaien arduradunekin koordinaziorik aurrera eramán.

Aduna, Hondarribia, Hernani, Itsasondo, Tolosa eta Orendainen kasuan, aldiz, partaidetza-saio ezberdinetan jorratu diren gaien arduradun ezberdinen arteko koordinazioa egon da.


e) TA21en partaidetzaren planifikazioan zeharkako gaien (berdintasuna, aniztasuna, gazteria, hizkuntza, ...) arduradunekin koordinaziorik ba al dago?



30. irudia


2015.urtean TA21en herritarren partaidetzari baliabide gehien esleitu zizkioten udalerrriak Tolosa eta Urretxu izan ziren. Aduna, Arama, Irun eta Orendainek ere baliabide anitz bideratu zituzten arlo honetara.

f) 2015. urtean zein BALIABIDE eman zitzaizkion TA21en herritarren partaidetzari?



31. Irudia


g) TA21en partaidetza sustatu eta errazteko zer nolako BALIABIDEAK jartzen dira parte-hartzaileen eskura?



32. irudia

Orokorrean, TA21en partaidetza sustatu eta errazteko mota bateko edo besteko baliabideak esleitzen dituzte udalerrri guztiek. Gainera, aurrez deialdia eta gai-zerrenda bidaltzen dute eta saioen aktak idatzi eta parte-hartzaileei bidaltzen zaizkie.


h) TA21ekin lotura duten herritarren partaidetza mekanismo hauetatik, zeintzuk bildu dira gutxienez behin 2015ean?



33. irudia

TA21ekin lotura duten herritarren partaidetza-mekanismoetatik, orokorrean, udalerrien gehiengoak Eskola Agenda 21en Foroa edo antzeko mekanismoren batekin zerikusia duten parte-hartze saioak antolatu ditu 2015ean.


i) TA21en partaidetza-mekanismoa nola dago irekita herritarrei?



34. irudia

TA21en partaidetza-mekanismoa herritarrei irekia dagoen udalerrietan, orokorrean, ez dago partaideen zerrenda zehatzik. Bestalde, nahi duen herritarrak parte hartu dezake bertan (hau da, parte-hartze mekanismo irekiak dira).


j) 2015. urtean TA21ekin zuzenean lotura duten partaidetza-mekanismoen BILERA kopurua



35. irudia


2015. urtean TA21ekin zuzenean lotura duten partaidetza-mekanismoen bilerak antolatu dituzte udalerri gehienek (aitzitik, 2016ko laguntza-zerbitzuan parte hartu duten udalerrien %25ak ez zuen TA21en herritarren bilerarik antolatu 2015 urtean zehar).

k) 2015. urtean TA21en partaidetza-mekanismoetara bertaratutakoen kopurua zehaztu



36. Irudia


l) 2015. urtean TA21en partaidetza-mekanismoetara bertaratutako emakumeen eta gizonezkoen ratioa



37. irudia

2015.urtean TA21en partaidetza-mekanismoetara bertaratutako gehiengoak gizonezkoak izan dira, nahiz eta saioak ordutegi ezberdinetan antolatu izan diren zenbait kasutan.


m) Bileretako hizkuntza-trataera



38. irudia

Kasu gehienetan, ele bietan egiten dira partaidetza saioak. Hizkuntza bakarrean egiten direnean, berriz, euskara gaztelaniari gailentzen zaio, erabilerari dagokionez.

n) 2015. urtean TA21ekin lotura duten partaidetza-mekanismoetan udalerriko zein ERAGILEK parte hartu dute modu jarraituan?




39. Irudia

2015.urtean TA21ekin lotura duten partaidetza-mekanismoetan, modu jarraituan, udalerriko eragile mota gehienak inplikatuak egon diren udalerriak Donostia, Irun, Tolosa eta Urretxu izan dira.


Halere, guztietan argi geratzen da TA21ekin lotura duten partaidetza-mekanismoetan ordezkatuta ez dagoen giza-profil nagusia herritar gazteena dela.

o) TA21ekin lotura duten partaidetza-mekanismoetan GIZA-PROFILETATIK zeintzuk EZ daude behar bezala ordezkaturak?



40. irudia


p) 2015. urtean zein fasetan zegoen Agenda 21a?



41. Irudia


2015.urtean, orokorrean, ebaluatutako udalerrietako Agenda 21en ekintza-plana gauzatze-fasean aurkitzen zen. Donostia, Irun, Urretxu eta Zegama izan dira 2015ean beraien plana berrikusten amaitu dutenak.

q) Soilik Tokiko Agenda 21a BERRIKUSPENEAN bazegoen, nola hartu zuen parte TA21en Foroak prozesuan?



42. irudia

r) Soilik Tokiko Agenda 21a GAUZATZE fasean bazegoen, 2015ean Ekintza-planaren jarraipenean zein izan zen TA21en herritarren partaidetzaren papera?




43. Irudia

TEPAa gauzatze fasean zegoen udalerrien ia erdiaren kasuan, TA21en foroak edo antzeko mekanismoak ez zuen inolako funtziorik bete ekintza-planaren jarraipenari dagokionez.

Esanguratsua da, halaber, udalerrien %30,7aren kasuan TA21en Foroa edo antzerakoa ez bildu izana.

s) 2015. urtean ondorengo zein gaitan izan dute eragina TA21i lotutako herritarren partaidetza-mekanismoek?




44. irudia

Herritarren partaidetza mekanismoek esparru ezberdinetan izan duten eragina oso heterogeneoa izan da. Halere, airearen kalitatearen esparrua izan da TA21en partaidetza-saioetan gutxien jorratu den gaia.

Azken urteetan TA21ak aurrera eramandako herritarren partaidetzaren sustapenean lan egin dutenen artean, Deba eta Tolosa izan dira gai mota gehien landu dituztenak.

t) Azken urteetan Tokiko Agenda 21ak aurrera eramandako herritarren partaidetzaren sustapenak...



45. irudia



7. LABURPENA ETA ONDORIOAK

7.1. TOKIKO AGENDA 21EN EGOERA GIPUZKOAN

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 89 udalerrietatik 84k eta 2 eskualdek, 2.000 urtetik hona, Agenda 21en ekintza-plana onartu dute uneren batetan.

Udalerrien laurden batek TA21en kudeaketa aktiboa zein berariazkoa burutzen du, eta bere planifikazioa berrikusi du. **2015 eta 2016 urteen artean Agenda 21eko Ekintza-plan berriak onartu dituzten udalerriak 9 izan dira.** Udalerrien ia heren batek, ordea, ez du, egun, TA21en erabilera aktibo bat egiten. Zuzeneko lotura bat dago udalean TA21en koordinazio teknikorako pertsona bat izendatua izatearen edo ez izatearen, eta prozesuaren bizitasunaren artean.


7.2. EBALUAZIO- ETA PROGRAMAZIO-ZERBITZUAREN BILAKAERA

Gipuzkoako Foru Aldundiko **TA21eko Behatokiak 11 urte daramatza TA21en ekintza-planen ebaluaziorako zerbitzua Gipuzkoako udalerriei eskaintzen** eta bakoitzaren beharretara moldatzen.

2016 arte, guztira 57 udalerrik gutxienez behin ebaluatu dute beren TA21en ekintza-plana eta **306 ebaluazio egiteko laguntza eskaini da**. Ebaluazio-prozesua sendotua dago hainbat udalerritan. Zerbitzuaren hasieratik 7 udalerrik eta eskualde batek 9 edo 10 urtez beraien planak ebaluatu dituzte. Honakoak dira aipatu udalerriak eta eskualdea: Azpeitia, Arrasate, Debabarrena, Donostia/San Sebastián, Legazpi, Orendain, Tolosa eta Zarautz.

Ebaluazio-zerbitzuarekin batera **ekintza-planen programazio-zerbitzua** indartzea lortu da. Horrela, 2013 urteko GFAko TA21en ebaluazio-zerbitzuan batez ere ekintza-plan berria onartu berri zuten udalerrien artean bideratu zen programazio-zerbitzua eta, hau, interesgarria da oso, programazioa hasieratik beraien barne-kudeaketan barneratzeko bidea ireki dutelako. Horrela, 2013 urteko ebaluazio-emaizak eskuartean izanda, 2015 urtera begirako jardueren programazioa landu zen.

2014ko laguntza-zerbitzuan 7 udalerrik burutu zuten beren planen programazioa 2016 urterako.



7.3. EZAUGARRIAK

2016an ebaluatu diren 23 planen artean oso udalerririk txikiak, 114 biztanle dituztenak (Orexa), eta 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerririk aurki ditzakegu (Donostia, Irun). Planen hedadura eta udalerrietako biztanle kopuruaren artean zuzeneko erlazioa dagoela antzeman daiteke.

Udalerririk txikien Agenda 21eko planetan eskualde mailako erakunde eta eragileen parte hartzea baxua izan ohi da eta ekintza planaren exekuzioan ardura hartzeko baliabideak, urriak.



7.4. EKINTZA PLANEN EZARPENA ETA EMAITZAK

Ebaluatutako ekintza-planen herenak soilik gainditzen du 3 urtetako indarraldia

2016an ebaluatutako 23 ekintza-planen batez besteko ezarpen-epea 3´5 urtetan kokatzen da eta, epe honetan, batez besteko ezarpen-maila %36koa izan da. Balio hau 8 puntutan urruntzen da epe horretarako ezarritako helburuko baliotik.

Orokorrean, 1. belaunaldiko planen indarraldia agortzear dela nabaria da, azken urteetan ezarpen-erritmoa jaistera eraginez. Udalerri horietan, azken urteko ezarpen-erritmoak ez du %4a gainditzen.

2015ean ebaluatutako planen %87 dira bigarren belaunaldikoak.



Azken ebaluazio-zerbitzuan ebaluatutako ekintzak 2.983 izanik, horien erdia baino gehiago (zehazki, %57a. Hau da, 1.700 ekintza), 2015ean, gutxienez, hasita edo aurreratuta zeuden eta 566 ekintza (%19a), amaitzen edo amaituta. Datu horiek islatzen dute ekintza-planak bizirik dirautela.

7.5. AGENDA 21EKO EKINTZA PLANEK KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKARI EGITEN DIOTEN EKARPENA

2016ko ebaluazio zerbitzuan parte hartu duten Udaletatik Tolosak soilik du Klima-aldaketari aurre egiteko plana eta, beste batzuk, Donostia edo Legazpi kasu, plan horiek osatzeko lanetan dihardute.

Hala ere, berezko planak eduki ez arren udalek beraien iraunkortasun prozesuaren garapenarekin eta TA21eko ekintza-planen gauzatzearekin, klima-aldaketari lotutako hainbat arintze eta egokitze-jarduera burutzen dituzte (Alkateen Itunarekin bat egitea, energia-planak onartu eta ezartzea, etab.).

EAEko Klima-aldaketaren Aurkako 2050 Estrategiak zehaztu dituen 9 helmugak eta hauetatik eratorritako 24 jarduera-lerroak zeintzuk diren aintzat hartuz, XI. ebaluaketa zerbitzuan parte hartu duten udalerriek 2015 urtean zehar gauzatu dituzten jardueren analititik honako ondorioak atera dira:

Kontsumoa eta Hondakinak (%23) eta Energia (%19´1) arloetan kokatzen dira Klima-aldaketaren inguruan udalek burutu dituzten jarduera gehienak.

Ezagutza (%1´4) zein Lurralde-antolamendua eta Hirigintza (%2´7) arloko jarduerak berriz, orotara gutxien garatu diren esparruak dira.

7.6. HERRITARREN PARTAIDETZA AGENDA 21EN BAITAN

Ebaluatutako udalerrien tamainaren arabera baino, Udalaren izaerak eta bestelako faktoreek eragiten dute 2015ean aurrera eraman diren partaidetzaren garapenean zein arrakastan:

Aurrera eraman diren partaidetza-prozesu nagusiak sektore eta gai zehatz bat lotutakoak izan dira edo, baita, udal aurrekontuen eraketarekin zerikusia dutenak ere.

Udalerri gehienek (%47,6) partaidetza prozesu berriak Tokiko Agenda 21ekiko independenteki koordinatzen dituzte. Hala ere, udalerrien %56,7ak iraunkortasun irizpideak txertatu ohi ditu halako prozesuetan.

Udalerri gehienek kasuan, ez da TA21en partaidetzaren planifikazioan zeharkako gaien arduradunekin koordinaziorik aurrera eraman.

Udalerrien gehiengoak Eskola Agenda 21en Foroa edo antzeko mekanismoren batekin zerikusia duten parte-hartze saioak antolatu ditu urtero.

TA21en partaidetza-mekanismoa herritarrei irekia dagoen udalerrietan, orokorrean, ez dago partaideen zerrenda zehatzik. Nahi duen herritarrak parte hartu dezake bertan.

TA21ekin zuzenean lotura duten partaidetza-mekanismoen bileraren bat egin dute ia udalerri gehienek, 2015 urtean.

TA21en partaidetza-mekanismotara bertaratutako gehiengoak gizonezkoak izan dira kasu gehienetan, nahiz eta saioak ordutegi ezberdinetan antolatu izan diren zenbait

Kasu gehienetan, ele bietan egiten dira partaidetza saioak. Hizkuntza bakarrean egiten direnean, berriz, euskara gaztelaniaren gainetik kokatzen da, erabilerari dagokionez.

TA21ekin lotura duten partaidetza-mekanismotan ordezkatura ez dagoen profil nagusia herritar gazteena izan da.

TA21ekin lotura duten partaidetza-mekanismotan, modu jarraituan, udalerriko eragile gehienak inplikatuak egon diren udalerriak Donostia, Irun, Tolosa eta Urretxu izan dira.

TA21a gauzatzeko fasean zegoen udalerrien ia erdiaren kasuan, TA21en foroak edo antzeko mekanismoak ez zuen inolako funtziorik bete ekintza-planaren jarraipenari dagokionez.

Airearen kalitatearen esparrua izan da TA21en partaidetza saioetan gutxien jorratu den jasangarritasun-arloa.